



Euskal Herriko Gatazka Politikoa

Haur eta Gazte Literaturaren tabuak

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Dominguez Sanchez, Unai.

ZUZENDARIA: Arnal Gil, Txabi.



2015

“Quien escribe bien para los niños, escribe bien para la eternidad”

Erich Kästener

Lan hau Euskal Herriko Gatazka politikoa tabu izan duten pertsonei eskainia dago, egoera zail honen ulermena errazteko helburuarekin.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	1
2. Oinarriztapen teorikoa.....	3
3. Metodoa.....	6
3.1. Ikerketaren helburua.....	7
3.2. Hipotesiak eta galderak: ikerketarako proposamenak.....	8
3.2.1. Kronologia.....	8
3.2.2. Non gertatzen den.....	8
3.2.3. Gai deserosoak eta Euskal Herriko gatazka.....	8
3.2.4. Sufrimendua nork pairatzen duen.....	9
3.2.5. Hezkuntzak badu eraginik?.....	9
3.3. Informazioaren eta horren analisiaren prozesua.....	9
3.3.1. Aurretiazko ikerketa.....	9
3.3.2. Hipotesien eta galderen inguruan ibiliko diren eta aztertuko ditugun puntuak.....	10
3.3.3. Instrumentuaren edo bibliografia-fitxaren sorkuntza.....	10
3.3.4. Korpus literarioaren bilaketa eta identifikazioa.....	11
3.3.5. Irakurmen analitikoa.....	11
3.3.6. Informazioaren azterketarako sortu ditugun puntu ezberdinen datuak.....	11
3.4. Instrumentua.....	11
3.5. Ikerketarako sortu dugun korpus literarioa.....	17
3.6. Korpusa.....	18
4. Emaidzak.....	19
5. Emaidzen ondorioak.....	26
6. Bibliografia/Webgrafia.....	30
7. Eranskinak.....	32

1. SARRERA

Literatura, noiz sortu zen? Betidanik kontatu izan dira ipuinak, eleberriak, istorioak, biografiak... Herriz herri joaten ziren ipuin kontalariak. Ipuinak kontatzen zituzten diru truke. Noizbait ahozko literatura paperean jasotzen hasi zen, gorde zen, babestu zen; hurrengo belaunaldietarako transmisioa bermatuta zegoen, horren inguruko merkatua sortu zen. Horri esker ere, aurreko mendeetan ezagunak ziren ipuinak gugaraino zilegatu dira, ezagutu ditugu.

Literaturak diktaduretatik, gudetatik, errepresioetatik... bizirik irautea lortu du, hainbat eragin, aldaera eta helburu izanik. Adibidez, XX. mendeko 60. hamarkadan, Espainiako guda zibila pasa ostean, gai desatseginak baztertu ziren Haur eta Gazte Literaturaren eremuan. Gudaren eraginez, haurrek gehiegi sufritu zuten, ipuin atseginak behar zituzten, tristeak baztertuak izan ziren. Literaturak izan duen beste aldaketa baten adibidea hurrengoa da: XIX. mendera arte haurrak oso gazte hasten ziren lanean; haurtzaroa helduarotik ez zen bereizten. Baina, XIX. mendetik aurrera, umearen eskolaratzearekin batera, bereizketa hori egiten hasten da. Horren eraginez, literatura ere bereiziko da, Haur eta Gazte Literatura alde batetik, eta Helduen Literatura bestetik. Baina bereizketak daudenean, mugak sortzen dira; eta tabuak, besteak beste. Batzuentzako gai egokiak direnak, beste batzuentzako ez dira. Hona hemen eztabaida.

Gaur egungo literaturan errealismo kritikoaren presentzia handia da. XX. mendearen erdian, 70. hamarkadan, nagusitzen hasi zen tendentzia kontenporaneo hau *Emilio y los detectives* (Kästner, 1929) eta *Pippi Calzaslargas* (Lindgren, 1945) obrei esker. Orduetik aurrera, guraso eta irakasle asko gai berritzaileak eskatzen hasi ziren. Haurrek "gai deserosoei" buruz informazioa nahi zuten, informazio hori jasotzeko eskubidea zuten, euren inguruneari eta egunerokoari buruzkoa, eta "tabu" horiek alde batera uzten hastea eragin zuen tendentzia horrek.

Baina zer da "Tabua"? "tabuak" guk geuk sortzen ditugu, galdera askori ez baikara erantzuteko gai sentitzen eta benetako erantzun bat eman ordez, mundu

irrealak sortzen ditugu. Horregatik, haurren jakin-minak ez ditugu erantzuten eta gaia giltzapetzen dugu, ez dakigulako nola jokatu. Baina Kästner eta Lindgren bezalako idazleei esker, errealismo kritikiko tendentziari esker, “gai deserosoak” naturaltasunez jorratzen hasi ginen, gaur egun guztiz normalizatua ez egon arren; heriotza, sexualitatea, gerra, umearen barne konfliktuak, arrazakeria... Haur eta Gazte Literaturara ailegatu zilegatu eta geratu ziren.

Haurrak jakin nahi du, informazioa lortzeko eskubidea du, horregatik edozein gai tratatu behar dugu. Hala eta guztiz ere, umeak optimismoa behar duela ez dugu ahaztu behar. Michi Strausfeldek (1998) “El realismo critico en la literatura infantil-juvenil” artikuluan esan zuen bezala, argi izan behar dugu edozein gai tratatu arren, amaiera zoriontsua eskaini behar diegula haurrei. Horri esker, jakingo dute arazoei aurre egitea dagoela egoera negatibo edo gogorretan. Honekin batera, argi izan behar dugu literaturaren helburu nagusia ez dela didaktismoa izan behar. Horri dagokionez, gai deserosoen aurrean ematen den arazo nagusia da. Kasu horretan literaturak esentzia galtzen du.

Hau guztia esanda, helduok zer dakigu Euskal Herriko gatazka politikoaren inguruan? Eta umeek? Haur bati esplikatzeke gai izango ginateke? Naturaltasunez solasten dugu terrorismoaren inguruan edo tabutzat jo genezake? Axola al du non eta norekin hitz egin gai honen inguruan? Terrorismoaz solastu egiten da Haur eta Gazte Literaturan? Eta horrela bada, ohikoa al da umeek gai honen inguruko lan literarioak irakurtzea?

Galdera hauei guztiei ezin genezake aho batez erantzun. Hala ere, ikerketa lan honi esker posible izango dugu egoera zein den ezagutzea; Haur eta Gazte Literaturan gai honen trataerak izan duen bilakaera, gaur egun arte zenbat idatzi egin den eta gaur egun zenbat idazten den. Honekin batera, lan honi esker liburu ororen ezaugarriak aztertuko ditugu, ikerketa sakona egiteko asmorekin eta aterako ditugun ondorioak funtsezkoak izan daitezen.

2. OINARRIZTAPEN TEORIKOA

Zer ikertu den

Azkenengo hamarkadetan, 1961 urtetik aurrera, hain zuzen ere, Euskal Herriko biztanleok egoera latzean bizi izan gara. Oraindik ere arrastoak agerikoak dira.

Euskal Herriko gatazkak euskarazko narrazioan duen eragina gai zuen elkarrizketan, Olaziregik (2012) hurrengo galdera bota zuen: “Zein paper izan behar du literaturak konfliktu politikoaren egon den herrialde batean?” Hamarkadetan zehar azaldu den galdera izan da. Izan ere, 90. hamarkadan hainbat kritikok euskal literatura errealeismoaren ezkutuan bizi zela adierazi zuten, Mikel Ayerbek (2012) “La Jornada” egunkarian jakitera eman zuen bezala. Hala ere, ez zen erabat zuzena; Joki Muñozek (2008), Atxagak (2003) edo Ramon Saizarbitoriak (2000) *El camino de la oca*, *El hijo del acordeonista* edo *Guardame bajo tierra* obra bikainekin gaia landu zuten. Iban Zalduaren (2014) ustetan, aldiz, betidanik idatzi izan da Euskal Herriko gatazkari buruz, “betidanik” horrekin euskal literatura garaikideena ulertzen badugu, noski.

Hala ere, nahiz eta 90. hamarkadan hainbat kritikok euskal literatura errealeismoaren ezkutuan bizi zela aditzera eman, Iban Zalduaren (2014 urtean) esanetan, gaur egun ere sentsazio edo iritzi bera du gizartearen zati handi batek. Mikel Iriondo¹: “Lo llamativo sigue siendo la falta casi total del realismo. Goenkale; los directores no saben ni como ni desde donde tratar el tema”. Fernando Aranburu²: Idazleek ez dute honi buruz asko hitz egin. Badirudi nazionaltasunari zer edo zer zor diotela. Sarasola³ (Berria): Zaila dela? Baiki, beti da errazagoa beste batzuen gudez hitz egitea.

¹ Iban Zalduak 2014-11-27an emandako hitzaldian jasotako informazioa.

² Iban Zalduak 2014-11-27an emandako hitzaldian jasotako informazioa.

³ Iban Zalduak 2014-11-27an emandako hitzaldian jasotako informazioa.

Zergatik jarraitzen dugu gaia behar adina landu ez denaren sentsazio berarekin? Iban Zalduak (2014) galdera honi argi erantzun dio berak egindako ikerketetan; 80ko hamarraldiko hutsune “erlatibotik” dator sentsazio hori. Haatik, euskal literatura ez da berandu ibili gai honi dagokionez, betidanik existitu dela adierazten du Zalduak.

Haur eta Gazte Literaturari dagokionez, gai honi buruz ez da gehiegi idatzi ezta ikertu ere, Xabier Etxanizek (2004) *La ideologia en la literatura infantil y juvenil* artikuluan aditzera eman zuenez, 1992. urtetik aurrera hasi zen gai hau jorratzen. Horregatik, aurki dezakegun liburu sorta ez da oso zabala. Hala ere, Euskal Herriko gatazka liburuetan azaltzea gero eta nabarmenagoa da, nobelaren beste elementu bat bezala. Gainera, gai normalkuntzarako prozesuan egoteaz gain, gaia lantzeko erabiltzen diren ikuspegiak ere zabaldu dira.

Helduen literaturan aldiz, euskal gatazkari buruzko erreferentziak nabarmenagoak dira, *Gatazkaren ikuspegi literarioak* (Xabier Garcia Arguello, 2007) eta *Gatazkaren lorratzak* (Mikel Asurmendi, 2013) artikuluek azaltzen duten moduan.

Mikel Ayerbek (2012) adierazi zuen bezala, egoera politiko berriak bizitzan eta ariketa kulturean ondorio positiboak eragin zituen, euskal literaturan aldaketa zorrotza suposatu zuen: editorialen, sorkuntzarenganako laguntzen eta literatura sarien ugartzea. Euskaldunen liburuen ekoizpena eta idazleen kopurua nabarmenki areagotu zen urte tarte txikian. Estatistikak adierazgarriak dira, hala ere, kantitateak ez du kalitatea bermatzen. Jose Maria Lasagabasterrek (2006), euskal literaturaren historiari buruzko egindako ikerketan adierazi zuen bezala, 1876-1975 urte tartean 31,5 liburu argitaratu ziren urtero. 1975-1994 urte tartean 659,2 argitalpen eman ziren urtero. 1998. urtean 1458 liburu azaleratu ziren eta horien artean euskarazkoak 300 izan ziren. Gaur egungo literaturari dagokionez, ez da gai honetan soilik zentratzen, baina gai gailenak dira, nahiko adierazgarria eta bitxia izanik.

Gai honi bizia eman diona literatura narratibo hunkigarria eta unibertuala izan da. Argitaratu diren liburuei esker errealitate ezberdinak ezagutu eta uler ditzakegu:

Eztia eta Ozpina liburua (Zubizarreta, 1995) atzerritarrek bizitzen duten egoera ulertzeko baliogarria suerta daiteke. *Kandiskyren tradizioa* liburuak (Saizarbitoria, 2003) politikoen elkar ulertzearen beharra eta komunikazioaren nahia islatzen du. *Pike eta Pitito* (Agurrutza, 1994) edizioak poliziaren inguruko aurreiritzia azaltzen du, *Tunelaz bestaldean* liburuak (Garzia, 2000) euskal presoan urruntzea lantzen du, *Marigorringoak hegan* edizioak (Zubizarreta, 1994) ea amaierak bidea justifikatzen duenaren inguruko hausnarketa bultzatzen du, *Behi euskaldun baten memoriak* (Atxaga, 1991) edizioak faxismoaren aurkako borroka lantzen du, *Txaburraren alaba* (Mendiguren, 2000) abertzaleen ikuspuntua ulertzeko baliogarria suerta daiteke, *Joxeme gerrara daramate* (Mendiguren, 1992) obrak intsumisioa, ikerketa militarren eza eta indarraren erabilpena sustatzen du eta *Harri barruko bihotz-borrokak* (Zabala, 1999) edizioak gaur egungo egoera zaila deskribatzen du.

Obra hauek guztiek, bai gaur egungo gizartean oinarritutakoak, bai aurreko mendeetan oinarritutakoak, irakurlearen hausnarketa dute helburu. Baina orokorrean guztiek askatasuna jarraitzen dute eta biolentzia gutxiagotzea edo desagertzea desiratzen dute.

Beraz, gaur egun, Teresa Colomerrek (2010). 70. hamarkadatik aurrera Haur eta Gazte Literaturaren lanen balore aldaketei buruz esan zuen bezala, hurrengo esan daiteke: haur eta gazte literaturan egoera bortitzen islak xede ideologiko garbia du, narrazio literarioaren elementu bat izateaz gain.

3. METODOA

Aukeratutako gaia *Euskal Herriko gatazka* politikoaren tratamendua gaur egungo Euskal Haur eta Gazte literaturan da. Haur eta gazte literaturaren gai deserosoen inguruan gabiltzanez, 0 urtetik 12 urtera arte zuzendutako liburuak hautatuak izan dira. Hautatuko liburuen idazleak euskaldunak dira, kanpokoko idazleen obrarik topatu ez dugulako. Honi esker Teresa Colomerrek (2010) dioena: “70. hamarkadatik aurrera, haur eta gazte literaturan, egoera bortitzek edo gatazkatsuek xede ideologikoa izan dutela, narrazio literarioaren elementu bat izateaz gain” ere egiaztatu ahal izango dugu.

Korpusa sortzerakoan idazle ezberdinak aukeratu ditugu, lana ahalik eta aberasgarrien (estiloa, ikuspuntua, xedea eta pentsaera) izan dadin. Korpusarekin bukatzeko, liburu guztiak euskaraz idatzitakoak izango dira.

3.1. Ikerketaren helburua

Ikerketa honen helburua Euskal Herriko gatazkak gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan izan duen eta duen islada aztertzea da. Lanean ikertuko ditugun puntuak hurrengoak izango dira:

1. Non gertatzen den.
2. Idazlea posizionalizatzen den.
3. Hildakorik, atentaturik edo iheslaririk dagoen.
4. Sufrimendua nork pairatzen duen.
5. Bi bandoen artean erlazorik dagoen.
6. Zein den kaltea eragiten duen bandoa.
7. Hezkuntzak eraginik duen; eskola (irakaskuntza), familiarengandik jasotako heziketa eta lagunek edo giroak hezkuntzan duen eragina hezkuntzan.
8. Zer informazio tresna erabiltzen diren.

Laburbilduz, ikerketa honekin haur eta gazte literaturako liburuek proposatzen dituzten galderetan sakontzen saiatuko gara. Honekin batera, Haur eta Gazte literaturak hauteman ez duenari erreparatuko diogu.

Gainera, gure lana erabilgarria izatea gustatuko litzaiguke; baliabide literario edo hezigarri izan dadin. Gaur egun, Euskal Herriko gatazka hasi zenetik berrogeita bost urte pasa diren arren, gizarteak ez daki nola hitz egin honi buruz. Honi dagokionez, Haur eta Gazte Literatura baliabide baliotsua izan daitekeela uste dugu.

3.2. Hipotesiak eta galderak: ikerketarako proposamenak

Ikerketa

Azterketa kuantitatiboaren nahiz kualitatiboaren bitartez, ikerketa honek gaiaren tratamenduari buruzko hurrengo galderen eta hipotesien erantzunak bilatuko ditu.

3.2.1. Kronologia

1. Hipotesia. Haur eta Gazte Literaturan, 1970 eta 2014 urte tartean, orainaldira hurbiltzen garen heinean, Euskal Herriko gatazka lantzen duen argitalpen ekoizpena handiagoa izango dela uste dugu, batez ere ETAk armak uztearen eraginarengatik.

3.2.2. Non gertatzen den

2. Hipotesia. Euskal Herriko gatazkari buruz, haur eta gazte literaturan, idatzi duten idazleak euskaldunak direnez, irakurle euskaldunak erakartzen saiatuko direla uste dugu. Horretarako, irakurlea gerturatzeko, istorioen testuingurua Euskal Herria izango dela uste dugu.

3.2.3. Gai deserosoak eta Euskal Herriko gatazka

3. Hipotesia. Gai hau normalizatzeko eta honen inguruan aurrerakuntzak egiteko, Euskal Herriko gizarteak egin duen esfortzua kontuan hartzen badugu, eta hezkuntzaren eta literaturaren arteko erlazioa aztertzen badugu, korpuseko obrek errealitate hau modu egokian tratatuko dutela uste dugu, non didaktismoak lehentasuna ez duen, literaturak baizik.

4. Hipotesia. Euskal Herriko gatazka heriotzarekin erlazionaturik egon da. Heriotza tradizio urriko gaia da haur eta gazte literaturan, gai deserosoa. Beraz, errealitatea erabat azaltzea oso zaila da, gai zail honen inguruan beste gai deseroso batzuk baitaudelako. Horregatik, autoreek gai hauek nola bideratzen dituzten ikusiko dugu, aldi berean lantzen badituzte.

5. Hipotesia. Sufrimendua askok pairatu izan dute, bai bando batekoek, bai beste bandokoek, bai bandoen alde ez zeudenek ere. Istorioa noren ikuspuntutik kontatzen den arabera, batzuk erasotzaileak izango dira eta besteak biktimak.

Beraz, korpuseko liburuetan ikusiko dugu kontaketa ikuspuntua zabala den ala ez.

3.2.4 Sufrimendua nork pairatzen duen

6. *Hipotesia*. Idazleek bando guztietako kideen sufrimendua nola islatzen duten ikusiko dugu.

7. *Hipotesia*. Hildakoak, atentatuak edo iheslariak presente izan ditugu gatazka politikoa hasi zenetik. Hiru kontzeptu hauek sufrimenduarekin erabat erlazionatuta daude. Haur eta gazte literaturan agertzen badira, narratibaren beste elementu bat bezala agertuko direla uste dugu, istorioaren gertaera nagusia izan beharrean.

3.2.5. Hezkuntzak badu eraginik?

8. *Hipotesia*. Hezkuntzari esker baloreak, gustuak, zaletasunak...transmititzen dira. Haurrek egunero ordu pila sartzen dituzte hezkuntza formalean nahiz ez-formalean, euren etxetik jasotako hezkuntzaz gain. Beraz, hezkuntzak gatazkan paper garrantzitsua burutu izan du. Korpuseko liburuetan ez dugu uste honen agerpena ikusiko dugunik. Izan ere, Euskal Herriko gatazka politikoa zaila, korapilatsua eta sakona da. Literatura errealista-kritikoak, beste helburu batzuen artean, erralitate konplexuak erraztea du helburu; 20 orrialdetan ezin daiteke konfliktu politiko osoa azaldu, anekdota bakarra baizik. Kasu honetan, hezkuntzaren gaia ez denez faktorerik garrantzitsuena, ez dugu uste honetaz idatziko dutenik. Hala ere, testuinguruko beste elementu bat bezala ager daitekeela uste dugu.

3.3. Informazioaren eta horren analisiaren prozesua

3.3.1. Aurretiazko ikerketa. Euskal Herriko gatazkaren lanketa azkenengo bost hamarkadetan aztertzeko, aurretiazko ikerketaren beharra izan dugu; autore ezberdinen liburu eta testuak. Horiei esker, ikerketa sakonagoa egiteko eta azkenengo ondorioak ateratzeko gai izan gara.

Lehenengo eta behin, lanketa hau aurrera eramateko, bai aurretiazko ikerketarako, bai ikerketa nagusirako, bilaketa sakona burutu izan da. Horretarako, aldizkarietan (Behinola), galtzagorri web orrialdean (Euskal Haur eta Gazte Literaturaren ingurukoa), Fundacion German Sanchez Ruiperezen, hainbat liburutegitan informazioa bilatu dugu eta hainbat idazleri (Iban Zaldia edo Txabi Arnal adibidez) galdetu izan zaie informazioa eta tituluak jakin nahian. Idazle hauei galdetzearen arrazoia hurrengo da: Iban Zalduari dagokionez, gai honen inguruan aditua da. Euskal Herriko gatazkak literaturan izan duen eta duen eraginaren inguruan ikerketak burutu ditu. Txabi Arnal aldiz, heriotzaren gaiaren inguruan aditua da. Badakigunez, Euskal Herriko gatazka politikoa heriotzarekin erlazionatua egon izan da hasiera-hasieratik. Beraz, idazle honen ikuspuntua ere interesgarria nahiz baliagarria iruditu zait.

Ondoren liburuen bilketa burutu dugu eta aztertu izan ditugu gai honen inguruko autore ezberdinen ikerketak.

3.3.2. Hipotesien eta galderen inguruan ibiliko diren eta aztertuko ditugun puntuak:

- Kronologia.
- Non gertatzen den.
- Idazlea pozisionalizatzen den.
- Hildakorik, atentaturik, iheslaririk dagoen.
- Sufrimenduaren pairamena.
- Informazioaren manipulazioa eta eskurapena.
- Bi bandoen arteko erlazioa.
- Kaltearen eragilea.
- Hezkuntzaren eragina.

3.3.3. Instrumentuaren edo bibliografia-fitxaren sorkuntza informazioaren azterketarako. Instrumentu hau (laugarren puntuan zehazki azalduko duguna) 3.2 atalean azaltzen diren puntuetan oinarritzen da. Ondoren, aztertutako liburu guztietatik ateratako datuak bilduko ditugu instrumentu horien bitartez. Zortzi taula izango dira guztira (eranskinetan azaltzen direnak). Horri esker, obraz obra

puntu guztiak aztertuko ditugu, informazioa kuantifikatzeko eta ondorioak ateratzeko helburuarekin.

3.3.4. Korpus literarioaren bilaketa eta identifikazioa. Korpusaren bilaketa eta identifikazioa ondorengo irizpide hauen arabera egingo dugu: formatua, argitaratze data, hizkuntza, kanona, gaia. Irizpide hauek aurrerago zehaztuko ditugu, 5. *Ikerketarako sortu dugun korpus literarioa* atalean hain zuzen ere.

Korpusa 8 liburuz osatzen da. Zortzi liburuak euskaraz, idazle euskaldunek idatzita, eta azkeneko hogeitun urteetan argitaratuak dira, 0 urte eta 12 urte tarteko haurrei zuzendutakoak eta bizirik, hau da, liburu guztiek liburu dendetan eta liburutegietan bizirik jarraitzen dute. Gainera eta jakina, Euskal Herriko gatazka politikoa gai printzipaltzat duten (nahiz eta liburuen bilaketa egiterakoan horrela ez agertu).

3.3.5. Irakurmen analitikoa. Korpus literarioa osatzen duten liburuen irakurmen analitikoa burutuko dugu. Horretarako informazioaren azterketarako sortu dugun bibliografia-fitxan oinarrituko gara. Azaleko irakurmena egin beharrean, interpretazio sakona egitea izan da gure helburua. Hori da, hain zuzen ere, irakurmen analitikoa egitearen arrazoi nagusia.

3.3.6. Informazioaren azterketarako sortu ditugun puntu ezberdinen **datuak** bibliografia-fitxetan **bildu, kuantifikatu, erlazionatu eta** objektibizatu izan ditugu **era estatistikoan** (*Emaitzak* deituriko atalean). Emaitzak atera ostean, horien **interpretazioa** burutu izan dugu (*Emaitzen ondorioak* deituriko atalean)

3.4. Instrumentua

Sortu dugun korpus literarioaren liburuen informazioa biltzeko, instrumentu edo bibliografia-fitxa sortu dugu. Instrumentu hau hainbat alditan moldatu eta egokitu

izan dugu, interpretazioa burutzerako orduan subjektibotasuna gainditzeko. Bibliografia fitxa hau hipotesien eta galderen inguruko puntuetan oinarritzen da.

Metodologia induktiboa jarraitzen saiatu gara. Honi esker, kasu bakoitzetik orokorrera jo dugu. Horrela, gure interpretazioek, azkenengo ondorioek, irakurmen analitikoaren oinarria izan dezaten.

Guk erabilitako bibliografia-fitxa hori atal ezberdinez osatuta dago, bakoitzak funtzio edo helburu ezberdinak dituelarik. Atalez atal joango gara horietako bakoitza zehaztu nahian:

1. Ikerketarako erabili dugun instrumentuaren lehenengo lau atalak obraren jatorrian oinarritzen dira; obraren titulua zein den, nork idatzi duen, zein urtean argitaratu zen eta zein argitaletzek argitaratu zuen obra. Hau guztia zehaztea garrantzitsua da, obra bakoitzaren jatorria beti presente izan behar baitugu. Izan ere, obra bakoitza bere kontestuan aztertu behar da, garai horretako irizpideak, baloreak, egoera soziopolitikoak... kontuan harturik; ez luke zentsurik izango 90. hamarkadako obra bat gaur egungo pentsaera edo irizpideekin aztertzea. Behin hau definituta, bilaketa ere errez buru daiteke.

Egilea:	
Izenburua:	
Urtea:	
Argitaletxea:	

2. Fitxaren bosgarren eta seigarren atalak protagonisten informazioa biltzeaz arduratuko dira. Strausfelden (1989) ikuspegitik, literatura errealista-kritikoaren arrisku bat errealitate konplexuak erraztea da. Izan ere, 20 orrialdetan ezin daiteke Euskal Herriko gatazka politiko osoa azaldu, baina garaiko anekdota esanguratsu edo adierazgarri bat kontatu, aldiz, bai. Ez dugu ahaztu behar irakurlea, irakurtzen duen heinean, istorioan guztiz sartzen dela, erabateko enpatia duela; irakurlea protagonistekin identifikatzeko joera duela. Kontakizun edo gertaera hauetan

protagonistek izugarrizko pisua dute, horregatik, hauen inguruko informazioa eskuratzea ikerketaren gakoetako bat izango da.

La literatura ofrece las formas de ficción y los referentes culturales que cohesionan una comunidad. Finalmente, la dimensión afectiva de los vínculos con los textos literarios favorece la construcción compartida de significados al mismo tiempo que contribuye a la construcción de la propia identidad (Colomer, 2013, p.24).

Pertsonaiek paper oso garrantzitsua dute istorio bakoitzaren antolamenduan. Izan ere, pertsonaiarik gabe ezingo genuke istoriorik kontatu. Hauei dela medio, irakurleak esperientziak bizitzeko, ikasteko eta hausnartzeko aukera du; pertsonaien bitartez idazlea irakurlearekin harremanetan jartzen da. Kasu honetan, Euskal Herriko gatazka politikoari dagokionez, haur irakurle asko identifika daitezke obra bakoitzak azaltzen duenarekin. Honekin batera, irakurle asko protagonistekin identifikatuko dira, ez bakarrik egoera antzekoak bizi dituztelako, baita adinaren antzekotasuna dela eta.

Protagonista nagusia	
Bigarren mailako protagonistak:	

3. Zazpigarren atalean gertaera bakoitza non gertatzen den adieraziko dugu, liburu bakoitza non dagoen girotua. Datu garrantzitsutzat jotzen dugu, non gertatzen den jakingo ez bagenu gertaeraren ulermena ez bailitzateke osoa izango. Izan ere, kontuan izan behar dugu ez dela berdina gertaera bat hiri edo herri batean gertatzea, ala Euskal Herrian edo Espainian gertatzea, ala Euskal Herriko iparraldeko edo hegoaldeko herri batean gertatzea, giro bakoitzeko giza-ezaugarriak ezberdinak dira eta.

Non gertatzen da:	
--------------------------	--

4. *Idazlea pozizionalizatzen da?* fitxaren atal subjektiboena dela esan daiteke. Hala ere, ikerketa lan honetan ahalik eta objektiboen izaten saiatu gara, bestela honek guztiak ez luke zentzurik izango. Galderari dagokionez, ez da batere samurra, erantzunaren ostean beti baitago hurrengo galdera: Zergatik? Honetan guztian zentratuko gara, idazlea pozizionalizatzen den, zergatik, noren alde,... Ostean, elkar loturak eta ondorioak aterako ditugu; argialetxeek eragina ote duten, idazleen jokaera politikoa, objetibotasuna posiblea den...

Idazlea pozizionalizatzen da?	
--------------------------------------	--

5. Hildakoak, atentatuak eta iheslariak hasiera-hasieratik egon izan dira guda politiko honi lotuak, gaur egun ere horrela izanik. Argi dugu umeak jakin nahi duela, munduaren eta “bere munduaren” inguruko informazioa lortzeko eskubidea duela eta batzuetan bizitzan tristezia eta hondamendiak gertatzen direla jakin behar duela, baina zein puntutaraino? Guda politiko honek ekarri dituen hildakoen, atentatuen eta iheslarien berri izan beharko lukete? Haur eta Gazte Literatura ausartuko al da egoera honen alde latzena umeen begi aurrean aurkeztera? Interesgarria iruditu zaigu korpusean atal hauek aztertzea, galdera hauei eta beste hainbatei erantzuteko helburuarekin.

Hildakorik	
Atentaturik	
Iheslaririk	

6. Korpusa liburu ezberdinez osatuta dagoela kontuan harturik, kasu edo anekdota ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu. Euskal Herriko gatazka politikoan sufrimendua agerikoa izan da hasiera-hasieratik, alderdi guztietatik. Atal honi esker nork pairatzen duen sufrimendua jakitea

posible izango dugu, eta zergatik. Honetaz gain, arreta berezia eskainiko diogu protagonisten sufrimenduaren garapenari, hura baita irakurlea gehien hunkituko duena.

Sufrimendua nork pairatzen du?	
---------------------------------------	--

7. *Informazio tresnak* atalean, Euskal Herriko gatazka politikoan paper garrantzitsua jokatzen duen aspektu bati buruz ari gara, baina komunikabideetan eta kaleko elkarrizketetan agerikoa ez dena. Bi bandoek elkarren arteko informazioa eskuratzen dute, baina nola? Bide edo tresna ezberdinak daude. Atal honi esker korpuseko liburu ezberdinetan informazioaren eskurapen hori ematen den eta nolakoa den ikusiko dugu. Aurkako bandoari buruzko informazioa eskuratzeaz gain, alderdi bakoitzak informazioa nola zabaltzen duen behatuko dugu ere.

Bi bandoen erlazioari dagokionez, historian zehar egon izan ohi denez eta kontuan harturik gaur egun guztion elkarbizitza helburu dugula, behatzeko aspektu garrantzitsu bat iruditzen zaigu. Izan ere, herri/hiri bakoitzean alderdi askotako jendea egon izan da beti. Beraz, elkarbizitza hori nola ematen den aztertzea interesgarria dela uste dugu.

Informazio tresnak:	
Erlazioa bi bandoen artean:	

8. Ipuin bakoitzean bezala, errealitatean ere bi bando ezberdintzen ditu gizabanako bakoitzak; maltzurak eta onak. Kasu honetan, Euskal Herriko gatazka politikoan, non sentimenduak beti pil-pilean egon diren, aztertzeke aspektu garrantzitsua dela deritzogu. Atal hau erlazionatuta egon daiteke *Idazlea posizionalizatzen da?* atalarekin.

Zein da bando “maltzurra” edo kaltearen eragilea?	
--	--

9. Gizakia animalia soziala da, elkarren arteko beharrezana dugu. Honekin batera, hezkuntzari esker garen bezalakoak gara, gure ingurukoek transmititutako ezagutza eta baloreei esker. Hau horrela, gure aburuz, *hezkuntzak borrokan eraginik ote duen* aztertzea interesgarria eta garrantzitsua da. Izan ere, euskal biztanleriak ideologia zehatza du, pentsaera, balore eta nahi antzekoak. Abiapuntua hezkuntza izan daiteke? Gure aburuz, gakoetako bat izan daiteke. Atal honek ez dio hezkuntza formalari bakarrik erreferentzia egiten, ez bailuke funts handirik izango; hezkuntza informalez ere ari da.

Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	
---	--

Beraz, erabili izan dugun instrumentua hurrengoa izan da:

Egilea:	
Izenburua:	
Urtea:	
Argitaletxea:	
Protagonista nagusia	
Bigarren mailako protagonistak:	
Non gertatzen da:	
Idazlea pozizionalizatzen da?	
Hildakorik	
Atentaturik	
Iheslaririk	
Sufrimendua nork pairatzen du?	
Informazio tresnak:	
Erlazioa bi bandoen artean:	
Zein da bando "maltzurra" edo kaltearen eragilea?	
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	

3.5. Ikerketarako sortu dugun korpus literarioa

Gaur egun haur eta gazte literaturako merkatuan aurki dezakegun liburu sorta oso zabala da. Hala ere, guk ikertu izan dugun gaia, Euskal Herriko gatazka politikoa, katalogatuta egon ez izanak korpus literarioaren sorkuntza zaildu egin digu.

Egoera hau ikusita, korpusaren bilaketa, aukeraketa eta identifikaziorako iturri ezberdinetara jo behar izan dugu: *Galtzagorri* web orrialdea (Galtzagorri elkarte

1990ean sortu zen. Bi helburu nagusi ditu: Haur eta Gazte Literatura sustatu eta ezagutarazi. Elkartean literaturgintza mota horrekin harremana duen edonork har dezake parte), autore ezberdinen artikulak (Xabier Exanizek, 2004, edo Jose Maria Lasagabasterrek, 2006 idatzitakoak besteak beste) eta idazle gutxi batzuen laguntza: Iban Zaldua eta Txabi Arnal (*El tratamiento de la muerte en el album infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008)*).

Aukeraketa egiterako orduan jarraitu ditugun irizpideak hurrengoak izan dira:

- a) Adina (haur eta gazte literaturako liburuak, 0 eta 12 urte tarteko haurrentzako egokiak direnak).
- b) Kronologia (1980 eta 2014 urte tartean argitara eraman diren liburuak; gaur egunekoak).
- c) Hizkuntza (euskaraz idatzitako liburuak).
- d) Gaia (Euskal Herriko gatazka politikoa).
- e) Kanona (korpusa aukeratzeko ez da kalitatezko irizpiderik erabili; ona, txarra, didaktikoa, literarioa... Horri esker, lortu nahi duguna zera da; ateratako emaitzak eta ondorioak errealak izatea, edo ahalik eta gehien gerturatzea behintzat).


3.6. Korpusa

1. Agurrutza, Xabier. (1994). *Pike eta Pitito*. Tafalla: Txalaparta.
2. Zubizarreta, Patxi /Mitxelena, Jokin. (2008). *Pikolo*. Irun: Alberdania.
3. Landa, Mariasun. (2000). *Amona, zure Iholdi*. Donostia: Erein.
4. Aristi, Pako. (1996). *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?*. Donostia: Elkar.
5. Cillero, Javi. (1994). *Eddy Merckxen gurpila*. Donostia: Erein.
6. Mendiguren, Xabier. (2000). *Txakurraren alaba*. Donostia: Elkar.
7. Zabala, J.L. (1999). *Harri barruko bihotz-borrokak*. 1999. Donosti: Elkar.
8. Zubizarreta, Patxi. (1994). *Marigorringoak hegan*. Bilbao: Edebe-Giltza.

4. EMAITZAK


Hona hemen gure lanaren emaitzak, hau da, gaur egungo EHko haur eta gazte literaturan, Euskal Herriko gatazka politikoak nolako trataera jasotzen duen:

- Liburuen %50a, hau da, zortzi liburuetatik lau, 90. hamarkadan izan ziren argitaratuak. Liburuen beste %50 aldiz, 2000 eta 2010 urte tartean argitaratu ziren. Beraz, korpuseko liburuen artean, 80. hamarkadakorik eta zaharragorik ez dago.



- Argitaletxeei dagokienez, %100a Euskal Herriko argitaletxeak dira. Aztertu ditugun liburuen %37,5a Elkarrek (zortzi liburutik hiru), %25a Ereinek (Zortzi liburutik bi), %12,5a Alberdaniak (Zortzi liburutik bat), %12,5a Txalapartak eta %12,5a Edebe-Giltzak argitaratu dituzte.
- Liburuen %50ean protagonista nagusia mutila da. Neska protagonista da liburuen %37,5ean, gainerako %12,5ean neskek eta mutilek protagonismoa partekatzen dute.
- Bigarren mailako protagonistek eragina izan dezaketen irakurlearen pentsaeran, hau da, konfliktoarekiko jarreran, izan da korpuseko liburuetan aztertutako beste aspektu bat. Liburuen %75ean bigarren mailako protagonistek eragina izan dezakete umearen pentsaeran. Adibidez; *Txakurraren alaba* (Medniguren, 2000) liburuan Andoni eta Mikelek Teresa momenturarte ikusitako edo bizitzako gatazkaren inguruko aurkako ikuspuntua eskaintzen diote, Teresaren pentsaeran erabateko eragina izanik; izan ere, bere aitaren (Guardia Zibila da) aurka jaiki egiten da. Beste adibide

bat; Marigorrigoak hegan liburuan, amona Paulak bilobari kontatzen dizkion istorioak edo sinesmenak haurrak barneratzen ditu eta horien arabera jokatzeko du; izan ere, euria egitea gustatuko litzaioke, eta horretarako ia edozer egiteko prest dago, amona Paulak kontatu dizkion trikimailuei men egiten die. Liburuaren %25ean aldiz, ez.



- Liburu hauek kontatzen duten istorioen %75a Euskal Herrian gertatzen da. Gainerakoetan, %25a, ez da zehazten non gertatzen den.
- Jarrera hartzeari dagokionez, %75ean idazlea posizionalizatzen da. Gainerako liburuen %25ean aldiz, ez. Zortzi liburutik hiru ETAren aurkakoak dira.

Eta berak esan dit egunero joango garela pistolarekin jolastera, gure arteko sekretua zela hura, sekreturik sekretuena, inori ez niola ezer esan behar, bestela... Eta nik, amona, ez dut horretara jolastu nahi, izu handia sentitzen dudalako, arriskugarria delako. Baina ez dut nahi pixa egiten dudala inork jakin dezan, nahigabe gertatzen baitzait, noizbehinka eta konturatu gabe gainera. Martinek mehatxatu egiten nau, txantajea egiten dit. Ez dut uste hori salatzeke gauza izango denik, baina... (Landa, 2000, pp.17-18).


ETAkoek auto batean alde egin zuten eta gero mendate batean lehertu zuten arrastorik ez uzteko. Ehun gehi ehun kilo ez-dakit-zer omen zeukan furgonetak. Eta kuartel atarian sekulako zuloa sortu zen, eta garitaren

arrastorik ere ez zen gertatu. Suhiltzaileek esan zuten gerra ematen zueka eta osoo gogorra egin zitzaie la zaurituak hondakinen artean salbatzea, hau da, gu... (Zubizarreta, 2008, pp.80-81).

Beste hiru guardia zibila, politikarien eta poliziaren aukakoak dira.


Potoloterrian nagusirik ez zegoen, dena kantu, dantza eta bertso bilkuretan erabakitzen zuten. Baina ez zuten ongi konprenitzen zergatik zen Errege izaki karratu guzien gidaria. Egiatzko garai latzak iritsi ziren Pololoterrira. Azkenean milaka izaki karratu jin ziren potolotarren herrietara. Potolotarren etxe borobilak ia ia desagertu ziren. Eskola karratuetan hurrek hizkuntza berria ikasten zuten. Laster gauza borobilak eramatea debekatu zuten. Ideia borobilak pentsatzea ere bai. Honela Pototerrria ia ia desagertu zen. Potolotar gazteek hitz berriak sortu zituzten: Elkartasuna, Borroka, Garaipena...Eta hitzen gibeletik, ekintzak ere heldu ziren... Bertze potolotar batzuek ezkutuan laguntzen zuten. Azkenean Potolotarrek irabazi zuten, hauxe erdietsi zuten: bakoitzak nahi zuen moduan bizitzeko eskubidea: karratu edo borobil. (Agurrutza, 1994,pp.45-47).

Eta gainerako biak ez dira posizionalizatzen.




- Korpuseko liburuen %75ean ez da hildakorik agertzen, %25ean, aldiz, bai.

- Euskal Herriko gatazka politikoan atentatuak presentzia nabarmena izan du. Izan ere, ETA banda armatuak atentatuak direla medio funtzionatu izan du. Haur eta Gazte Literaturari dagokionez, liburuen %50ean atentatuak agertzen dira, eta horietako %25an atentatua istorioan transzendentzia handikoa da. Hau da, atentatua ez da narratibaren gainerako elementu bat, elementu garrantzitsua baizik.



- Korpusaren %62,5ean ez da iheslaririk azaltzen; %37,5ean bai.
- Sufrimendua nork pairatzen duen, gure azterketaren beste atal bat da. Liburuen %87,5ean neskak eta mutilak sufrimendua pairatzen du. Bigarren mailako protagonisten sufrimenduari dagokionez, %62,5ean azaltzen da. Honetaz gain, %50ean terrorismoaren aldekoek sufrimendua pairatzen dutela azaltzen da, eta beste %50an terrorismoaren aurkakoek.



- Korpuseko liburu guztietan informazioak paper garrantzitsua jokatzen du. Alde batetik, informazioa lortzeko tresna ezberdinak (behartzekoak eta burutsuagoak) erabiltzen dira aztertu ditugun liburu batzuetan; %25ean tortura, %25ean pertsonak eta %25ean, xantaia. *Pikolo* (Zubizarreta, 2008) liburuan adibidez, irakasleak Pikolo (umea) erabiltzen du informazioa eskuratzeko; *Amona, zure Iholdi* (Landa, 2000) liburuan, Martinek Iholdi etengabe xantaia egiten dio berak nahi duena lortzeko, egiteko. Aldiz, beste liburu batzuetan informazioa manipulatzeko tresna ezberdinen bitartez; liburuen %25ean ipuinak edo esamesak, %25ean xantaia, eta %12,5ean telebista edo berriak.
- Erlazioen artean, bi bando bereiz daitezke. Horien arteko erlazioirik dagoen aztertu ondoren, honako emaitza hau azaldu da; %62,5ean ez eta %37,5ean bai. Bi bandoen arteko erlazioa gertatzen den liburuen %25ean protagonisten artekoa da; %12,5ean bigarren mailako protagonisten artean.
- Korpusaren %37,5ean banda terrorista bando maltzurtzat hartzen da.

Rau!, altxatu naiz ohetik. Danba!, itxi dut leihoa. Eta horren ostean tximeletari begira geratu naiz. Tximeleta bat hiltzen denean, zerua triste jartzen da eta euria, edo negarra, egiten du. (Hori ere amona Paulak esaten du). Liburu bat hartu dut tximeleta zapaltzeko. Zapla!, imajinatu dut, eta gero euria, ibaia,

igerilekua...Baina tximeleta eta biok oraindik elkarri begira gaude, eta ni oso-oso urduri nago. Halako batean, liburua utzi eta zas!, leihoa zabaldu dut parez pare. –Tira, alde hemendik!-esan diot erdi negarrez. (Zubizarreta, 1994, pp.18-22).


%37,5ean politikariak, guardia zibilak, polizia edo ertzaintza bando maltzurra bezala azaltzen dira.

Demokrazia batean bizi gara. Bozketa bidez hautatzen ditugu gure agintariak eta, berdintasunez, diskriminaziorik gabe, giza eskubideak errespetatzen dira. Libre gara nahi duguna pentsatzeko eta nahi dugun bezala bizitzeko. Nork sinesten du hori? Ezta behin eta berriro gogorarazten digutenek ere. (Zabala, 1999, pp.86).

Inoren kakak garbitzen aritu izan naiz ni lanean, belauniko komun zuloari begira, lana izan dudanean, gizarteari zerbitzatzeko aukera eskergarri eta ohoragarri hori ema didatenean, eta nagusiek eta haien bitartekariak lapurtu, laidotu eta umiliatu egin naute behin eta berriz, inor ez naizela sentiarazi, bide bazterreko harri kozkor bat baino ez naizela gogorazi. Horren aurrean harri kozkorraren duintasuna aldarrikatzea izan da nire iraultza guztia eta nire bekatu guztia. Tortura, hildura eta kartzela nire sariak. (Zabala, 1999, pp.84).

Gainerakoetan, liburuen %25ean, ez da zehazten zein den gaizkilea.

- Hezkuntzak borrokan eragina duen ala ez, korpusean azterturiko beste aspektu bat izan da. Honi dagokionez, %62,5ean eragina du; %37,5ean ez. Ondorio honetara posible izan dugu liburuetan azaltzen diren baloreei eta estiloaren ondorioei esker. Adibidez, *Txakurraren alaba* (Mendiguren, 2000) liburuan ikasle askok borroka hezkuntzarekin erlazionatzen dute, ikastetxean ekitaldiak prestatzen eta burutzen dituzte (“tolerantziaren astea”). *Pike eta Pitito* (Agurrutza, 1994) liburuan, Pikek Pititori ipuinak kontatzen dizkio, hauek guztiz eragiten dute Pititoren ideologian eta hezkuntzan; Pike eta Pititok denbora asko pasatzen dute elkarrekin, Pikek bere baloreak eta ideiak transmititzen dizkio haurrari. *Pikolo* (Zubizarreta, 2008) liburuaren kasuan, hezkuntzak terrorismoa laguntzen du, ETA banda armatuari informazioa ematen dio.



5. EMAITZEN ONDORIOAK

Gure ikerketako emaitzak, aurreko atalean bildutakoak, kontuan harturik eta oinarritzat hartuz, hurrengo ondorioak edo eztabaidarako gaiak aurkezten ditugu:

Idazlea posizionalizatzen da liburuen %75ean; zortzi liburutik hiru ETaren aurkakoak dira, beste hiru guardia zibilaren, politikarien eta poliziaren aukakoak dira, eta gainerako biak ez dira posizionalizatzen. Gai deseroso honen aurrean idazleek euren iritzia partekatzen dute 80. hamarkada latza¹ pasa ostean. Hau da, Euskal Herriko konflikto politikoa zuzenean lantzen duten liburuetan antzeman daiteke zein den idazlearen iritzia. Beraz, literaturaz gain, badago didaktismo puntu bat, non idazleak irakurlea erakarri, irakurlearen iritzian eragin eta idazleak kontatzen duen egoera gogorrekiko enpatia zabaldu nahi duen.

Honekin batera, hain gertukoa den gai honi buruz objetiboki idaztea oso zaila dela esan beharra dago. Gaur egun pil-pilean dagoen gaiaz hitz egiterakoan idazlea posizionalizazioan jautzen da. Aldiz, aurreko hamarkadetan gertatu diren bizipenak edo etapa batzuk amaitu ostean, *Eddy Merckexen gurpila* (Cillero, 1994) (frankismoaren azkeneko urteetan girotutakoa) edo *Din, dan, don... kanpai lapurrak non?* (Aristi, 1996) (guda karlistan girotutakoa) liburuetan adibidez, objetiboki azaldu daitezke. Idazleek garai horiek bizi ez dituztela izan daiteke horren arrazoia, edota ez direla identifikatzen kontatzen duten pasartearekin.

Liburuen %75ean bigarren mailako protagonistek eragina dute umea (protagonistaren) konfliktoarekiko jarreran. Horrek gizartean gertatzen dena islatzen du. Hau da, gizakia animalia soziala da, gizartean bizitzeko beharra du eta alderdi guztietan inguruneak eragina du berarengan; pentsatzeko eran ere bai. Beraz, guk ditugun ideia, balore edo gustu gehienak jaso izan ditugu, transmititu dizkigute. Liburuetan ikusi daiteke nola inguruan dauden pertsonak eragina duten protagonistengan; konfliktoaren inguruan duen jarreran, besteak beste.

Euskal Herriko gatazka politikoa gai deserosoa da. Baina gai deseroso bat lantzea zaila bada, askoz zailagoa izan behar du bi gai deseroso batera garatzea

(heriotza eta terrorismoa). Zer esanik ez haur eta gazte literaturan. Emaitzek hori argi eta garbi adierazten dute; **liburuen %75ean ez da hildakorik¹ agertzen**, nahikoa dute “gai deseroso” bat jorratzearekin.

Azkeneko lau hamarkadetan atentatuek presentzia handia izan dute euskaldunon egunerokotasunean, umeenean barne. Baina liburuetan hain presentzia txikia izateak, haurrek gai horri buruz hitz egiteko, itauntzeko edo ikertzeko izan duten eskubidea adierazten du. **Hau da, haurrek atentatuena gai tabua izan eta oraindik ere badute.**

Irakurlea protagonistarekin, denborarekin eta espazioarekin identifikatzea garrantzitsua da. Izan ere, irakurlea erakartzeko hiru aspektu hauek kontuan hartzea beharrezkoa da. Horregatik, **liburuen %75a gaur egungo Euskal Herrian gertatzen da.** Protagonistak neskak zein mutilak dira, kopuru berean, irakurleak mutilak zein neskak baitira. Denborari dagokionez, pil-pilean dagoen gaia da, oso presente duguna eta oraindik ere daukaguna.

Idazlea liburu gehienetan posizionalizatzen da. Beste helburu batzuen artean, idazleak kontatzen duen egoera gogorrekiko enpatia zabaldu nahi du. Adibidez, iheslarien kasua. Horregatik liburuetan iheslariak azaltzen dira, baina atentatuen eta hildakoen atalean bezala, agerpena ez da oso nabarmena; liburuen %37,5ean soilik agertzen da. Izan ere, gai deseroso eta korapilatsua baita.

Liburuen %50a 90. hamarkadan, eta beste %50a 2000 eta 2010 urte tartean argitaratu ziren. Beste hainbat garaitan bezala, gizarteak tarte bat behar du gertatutakoa asimilatzeke. Literaturak, beste hainbat helburuen artean, entretenitzeko xedea dauka. 80. hamarkadan ez zen honi buruzko argitalpenik eman, beste gai batzuk landu ziren, gai triste, deseroso eta gogor hau alde batera

¹ 80. hamarkada odoltsuena izan zen; 401 pertsona hildako, hain zuzen ere, ETA banda armatuak eraginda. 70. Hamarkadan, aldiz, 223 pertsona, eta 90. hamarkadan 163 pertsona hil egin zituen ETAK. GAL(grupo antiterroristas de liberacion) taldeak 1983-1987 urte tartean martxan egon zen eta 27 pertsona hil egin zituzten. GAL erakundearen helburua, biolentzia zela medio, ETA banda armatuarekin bukatzea zen. Horretarako, hilketak, torturak eta bahiketak burutu zituzten Espainia osoan. Hala ere, Euskal Herrian, iparraldean, batez ere jardun zuten. Barne-arazoetako ministroek finantzatu omen zuten organizazio hau.

utziz. Badirudi literaturak momentu egokiak bilatu behar dituela gai zehatzei buruz hitz egiteko; guden edo errepresio latzen ostean denbora tarte batean ez da gaiaz idazten.

Argitaletxeei dagokienez, Elkarrek eta Ereinek gehiago sakondu nahi izan dute, liburu gehiago argitara eraman dituzte. Elkarren kasuan, gaia lantzeko ikuspuntuak ezberdinak dira. Beste batzuen kasuan, aldiz, ez da harrizkoa idazleak nola bideratu duen gaia (bando maltzurra guardia zibilak, polizia eta politikariak direla adierazten du); Txalapartaren kasua, beste batzuen artean. Txalaparta argitaletxea ezker abertzalekoa ei da, eta ondorioz euren ideologia eta gaiari buruzko iritzia zeharo islatzen da. Gainera, gaiaz idazterakoan ikuspuntu beretik egiteak zeresana sortzen du, Txalapartaren kasuan garbia da.

la idazle guztiak bat datoz aspektu batean; **liburu guztietako protagonistek sufritzen dute**. Liburu bakoitzak istorioa ikuspuntu ezberdin batetik kontatzen duela kontuan harturik, sufrimendua bi alderdiek nahiz hirugarren pertsonak pairatzen dutela ondoriozta dezakegu.

Idazlea gehienetan pozisionalizatzen denez eta didaktismo puntu bat badagoenez, **istorio gehienetan bando bat maltzurtzat hartzen da**. Bando bat zein bestea ehunekoetan parean daude. Horrek esan nahi duena zera da, bando batek zein besteak gaizki jokatu duela, biak bando maltzurak izanik. Honekin batera, gizartearen zati baten iritzia ere islatzen du, batzuk baten edo bestearen aldekoak direla eta bestearen aurkakoak.

Jasotzen dugun hezkuntzaren arabera balore batzuk edo beste batzuk ditugu, halakoak edo bestelakoak gara, hau edo bestea idolozaletzen dugu...Hezkuntzak badu zer esanik, emaitzetan ikusi daitekeen bezala. Beraz, **hezkuntza gatazkan parte hartu duen bigarren mailako protagonistatzat kontsidera dezakegu**.

Bukatzeko **bi bandoen arteko erlazioari dagokionez**, oso neurri txikian agertzen da. Honek zera esan nahi du; errealitatean bi bandoen artean ez dagoela erlazorik; guardia zibilen seme-alaben eta herriko gainerako haurren

artean, guardia zibilen eta gurasoen artean... Talde itxiak sortzen dira, gorrotoa areagotzen da eta integrazio soziala fartsa hutsa bilakatzen da. *Pikolo* (Zubizarreta, 2008) liburuak egoera hau oso ondo islatzen du. Baina *Txakurraren alaba* (Mendiguren, 2000) liburuak soluzio bat proposatzen du: bakoitza bere bizitzaren nagusia da. Gutako bakoitza jaiotzen da tokatzen zaion familian, ez dugu inor epaitu behar guardia zibil edo abertzale baten seme-alaba izateagatik.

6. BIBLIOGRAFIA / WEBGRAFIA

[HTTP://WWW.JORNADA.UNAM.MX/2012/12/04/CULTURA/A04N1CUL](http://www.jornada.unam.mx/2012/12/04/cultura/A04N1CUL)

<http://www.basqueliterature.com/es/basque/historia/hauretagazte>

<http://www.basqueliterature.com/es/basque/historia/sarrera>

http://cvc.cervantes.es/literatura/cauce/pdf/cauce27/cauce27_06.pdf

http://elpais.com/diario/2007/02/12/paisvasco/1171312808_850215.html

<http://kritikak.armiarma.com/?p=5798>

<http://www.galtzagorri.org/> - Galtzagorri elkarte

Arnal, T. (2011). *El tratamiento de la muerte en el album infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008)*. Vitoria-Gasteiz: Tesis.

Brennen, A. (1987). *Los traumas infantiles. Cómo ayudar a vencerlos*. Barcelona: Planeta.

Carrasco, P. (2003). Posibilidades terapéuticas de la literatura infantil. *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 158, 44-53.

Cerrillo, P. (2007). *Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria. Hacia una nueva enseñanza de la literatura*. Barcelona: Octaedro.

Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Síntesis.

Colomer, T. / Margallo, A. (2013). *Las respuestas literarias a álbumes ilustrados en contextos multiculturales*. Barcelona: Universidad autónoma de Barcelona.

Exaniz, X. (2005). La violencia en la literatura infantil y juvenil vasca. In Ruzicka Kenfel, V. et. al. (ed.) *Mundos en conflicto: Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil*, 185-191. Vigo: Universidad de Vigo.

Strausfeld, M. (1989). *El realismo crítico en la literatura infantil-juvenil*. CLIJ: *Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 83, 83-87. Barcelona. Faristol.

Zaldua, Iban. (2014). Idazleak emandako hitzaldia¹.

Haur eta Gazte Literatura

Agurrutza, Xabier. *Pike eta Pitito*. 1994. Tafalla: Txalaparta.

Aristi, Pako. *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?*. 1996. Donostia: Elkar.

Cillero, Javi. *Eddy Merckxen gurpila*. 1994. Donostia: Erein.

Landa, Mariasun. *Amona, zure Iholdi*. 2000. Donostia: Erein.

Mendiguren, Xabier. *Txakurraren alaba*. 2000. Donostia: Elkar.

Zabala, J.L. *Harri barruko bihotz-borrokak*. 1999. Donostia: Elkar.

Zubizarreta, Patxi. *Marigorringoak hegan*. 1994. Bilbao: Edebe-Giltza.

Zubizarreta, Patxi /Mitxelena, Jokin. *Pikolo*. 2008. Irun: Alberdania.

¹ Iban Zalduak Gasteizko letrako fakultatean, 2014ko azaroaren 27an, euskal literatura eta euskal gatazkari buruz emandako hitzaldia.

7.ERANSKINAK